



3 LITERATURA

Mikrokontakizunak Literatur sarietako berrikuntza

Astelehenean, haur eta helduen Literatur Lehiaketak aurkeztu zituzten Manuel Lekuona kultur etxean. Aurren, berrikuntza nagusia helduen atalean dago, mikrokontakizunak. Ipuinak idatzi beharrean, 1.500 karaktereetako kontakizunak izango dira lehian. Lanak aurkezteko azken eguna ekainaren 8a izango da.



Kale gorrian bizi den lagun talde baten komeriak antzeztu zituzten Mikel Sarriegik zuzendutako Landaberri institutuko DBH2-ko gazteen taldeak.

6 ARETO-FUTBOLA

Festa handia izango da bihar kiroldegian

Ostadar SKT-k antolatzen duen XXIX. herriko areto-futboleko txapelketa finalerara iritsi da. Bihar arratsaldeko 17:00etatik aurrera ligaxka eta final handia ikusteko aukera izango da Udal Kiroldegian. Lehengo norgegiagokan Trumoi eta Naiban izango dira aurrez aurre. Finalean, berriz, Txindoki eta Buenetxea taldeak aurtengo edizioeko txapela lortzeko lehiatuko dira. Partiden arteko atsedendaldian, David Martin korrikalaria eta Jalguene elkarte sarituko ditu Ostadarrek.

Antzerkilari gazteen trebetasuna

Asteburuan ez da atsedenek izango, Manuel Lekuona kultur-etxean

Kukuka antzerki eta dantza asteko lehenengo aste honetan, Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako eta institutuko gaztekoen antzezlanak ikusi ahal izan dira. Hurrengo egunetan, antzerkiko gazte eta helduen eskutik, Shakespeare edo Saharako egoera taularatuko dira. Eta eskolako dantzako taldeen emanaldia izango da igandean.

Antzerki eta dantza asteak astelehenean ireki zituen atek. Landaberri ikastolan, zein Manuel Lekuona kultur-etxean, hainbat izan dira ikusi ahal izan diren lanak.

Etexko txikiak eta gazte-txoek taula gainean duten trebetasuna erakutsi dute lehenengo lau egun hauetan.

Honela, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen lagunak, kale gorrian bizi den lagun taldea, bidailari bereziak, Miss Sunshine txikia, printsesa eta bere gortea eta danbor magiko bat ezagutu ahal izan dituzte ikasle eta gurasoek.

Shakespeare eta Sahara
Gaur arratsaldean, Landabe-

rriko mimoak eta Zubietako taldearen "Basoan galdua" lana ikusi ahal izango dira.

Gazteen taldeak, berriz, 22:30etatik aurrera "Shakespeare osoa gutxi gorabehera" lana eskainiko du.

Eta bihar, Joserra Fachadok zuzentzen duen helduen taldeak "Ixiltasunaren ahotsak" lana eskainiko du.

Honetan 36 urte hauetan errefuxiatuen kanpamentuetan eman diren egoera ezberdinak erakutsiko dituzte.

Gidoia eta lana prestatzeko Gurutze Irizar Fatimeturaren eta, batez ere, herrian bizi den Ailem Etleimid sahararra-

ren laguntza izan dute.

Dantza

Bestalde, igandean, dantza taldeen txanda izango da. Goizeko saioan, 12:00etan, euskal dantzak eta sorkuntza izango dira nagusi.

Txulalari, txantxoak edo Lapurdiko inauterietako dantzak eta sorkuntzako hainbat koreografia, Oreka TXrekin ekainaren 2an dantzatuko dituzten zatiak, esate baterako ikusi ahal izango dira.

Arratsaldean, berriz, 19:00etatik aurrera, dantza garaikideko lanak erakutsiko dituzte.

NOAOA BIDAIAK
GRUPO ALMEIDA VIAJES

ERRESERBAK ETA INFORMAZIOA
943373613
noaobidaia@almeidaviajes.com

Hipodromo Etorbidea, #12
20160 LASARTE ORIA
GIPUZKOA

UPARAKO AURRE SALMENTA
MAIATZAK 31, ARTE

EDOZEIN
ESKAINITZA
HOBETZEN DUGU

[eskeintza.gehiago ...](http://www.eskeintza.gehiago.com)
www.noaobidaia.com

PREST

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

902 110 436
www.mondragon.edu/prest

Inskripzio epea zabalik!

ATE IREKIAK

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Graduen, Unibertsitate Masterren eta Graduondoen aurkezpena

Eskoriatza MAIATZAK 26 larunbata, 11:00

Gastronomia Zientzien Fakultatea

Donostia MAIATZAK 26 larunbata, 10:30

Goi Eskola Politeknikoa Biteri eta Arana Ikastetxe Nagusia

Arrasate EKAINAK 9 larunbata, 10:30

ARETO NAGUSIAN
Ikusi mundua
Leku onetan

Neure kabuz



Asier Odriozola
Ekaina

Egutegia begiratu gero begi bista-koa da maiatza erdi bidean dagoen neurrian ekaina ate joka ari dela, nahiz oraindik ere kolpe txikiak jo. Egutegiaz aparte badabilta giroan lasarte-oriarontzat hain berezia den hilabetearen zantzuak.

Horien artean, eguraldia hobetzea, gora-beherak gora-behera, eta horrek berarekin dakarrena, besteak beste, herriko tabernen terrazak jendeztatzea.

Horretan zenbait animalia bezelakoak gara, ez galdetu zeintzuren antzekoak. Badira, neguaren ostean eguzki izpiekin batera burua kobazulotik ateratzen dutenak, eta printzak gehitzen diren ahala gorputz osoko dantzan naturara ateratzen direnak. Gu, gizarteratu egiten gara, kalera egiten dugu, plazara, terrazara, giza artera, esan bezala.

Eta hor oraindik zuri dauden beso eta zangoak erakustez gaitara, elkarren berri jakiten dugu, ia-ia neguan nor berean eta nor berera aritu izan bagina legez.

Oskorrik Kausinoren Liburua kantuan dioen bezela, urre gorria baino hobea den "alegrantzia" nagusitzen da.

Eta telebista jarriz gero, Roland Garroseko irudiak goizetan goizetik, azterketa garaian, ekainean beraz, ikasketak une batez alboan uzteko aitzakiarik onena izaten dira.

Badu ekainak gure barruan halako aisialdi-lurruna, txikitaik txertatu zaiguna, oporren atariko hilabetea izanik, hilabeterik onena, oraindik ere oporrei kendu gabeko egunen bistadizoaren lurruna.

Eta ez nintzateke lasartear tajuzkoa gauza guztien gainetik herriko festak aipatuko ez banitu. Eta barkatu, baina lasartear naiz oso.

Ekaina agurretan hasten denean, hor bai, dugun guztia ematen dugu, eta asko da oraindik.

Ekainaren zai jarrita nago beraz, orain artean argi geratu ez bazaizue.

Zorion agurrak



Eneko eta Sara

Zorionak bikote zuen bostgarren eta lehenengo urtebetetzean! Muxu pila gurasoen partetik.



Elene

Zorionak pinpirintxo! Bi muxu zure urtebetetzeagatik. Garazi, Aizpea eta gurasoak.



Irati

Zorionak! Jarraitu beti bezain poxpoliña. Aita, ama, Eneritz eta familia guztiaren partetik.



Oier

Zorionak zure lehenengo urtebetetzean familia guztiaren partetik. Mila muxu.



Iker

Zorionak txapeldun! Zazpi mila muxu familiaren partetik.



Markel

Zorionak pottoko! Muxuak June eta familiako partetik.



Oier

Zorionak txapeldun!! Muxu asko zure gurasoen eta zure anaiaren partetik.



Maialen

Zorionak bihotzi! Hiru muxu handi familia osoaren partetik.



Naya

Zorionak printzesa. Asko maite zaitugu. Aita, ama eta tata. Mila muxu!



Nerea

Zorionak zure zortigarren urtebetetzean, Josu, amaxo eta aita-txoren partetik.



Nerea

Zorionak gure etxeko printzesari. 6 txokolatetzko muxu.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo www.txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Lan-eskaintza

• Pertsona euskalduna behar da ume bat zaintzeko. Ekainetik hasita iraila arte. Eskolatik ordu kanpoko orduetan izango litzateke. Interesa dutenek 665 716 075 telefonora deitu arratsaldeko zazpietatik aurrera.

Lan-eskariak

• Pertsona helduen zaintzarako erizaintza eta geriatrian trebatua den gaztea eskaintzen da. Interesatuak 679 526 305 telefono zenbakira dei dezatela.
• Emakumea eskaintzen da arratsaldeko 15:00tik 19:30ra garbiketa lanak egiteko edota pertsona helduak zaintzeko. Harremanetarako 619 803 199 telefono zenbakira deitu.

• Gizonezkoak nekazaritza lanak edo beste edozein egingo lituzke 14:00etatik aurrera. 625 423 540
• Geriatrian laguntzailea, eskarmentua duen pertsona arduratsua jende adindua, gaixoak edo minusbaliatuak zaintzeko eskaintzen da. Profesionaltasuna eta tratu ona eskaintzen du. Carlos, 680 983 527.

Salerosketak

• Seat Ibiza Diesela Salgai. Tfnoa: 669 426 399.

Eskaintza inmobiliarioak

• Garaje marra bat alokatzen da, Hipodromo etorbidean. 680 674 577
• Tarteko pisua duen 29 m²-ko lokal komer-

Heriotzak Jaiotzak

Heriotza

- Jose Rapado Gomez, maiatzaren 17an, 70 urte zituela.
- Joaki Mariezkurrena Haran, maiatzaren 17an, 58 urte zituela.
- Susana Ferreira Goyaz, maiatzaren 16an, 75 urte zituela.
- Manuel Juanikotena Aleman, maiatzaren 1 lean, 74 urte zituela.
- Antonio Montero Goyaz, maiatzaren 1 lean, 60 urte zituela.

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 18 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Larunbata, 19 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Igandea, 20 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Astelehena, 21 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Asteartea, 22 Rodríguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteazkena, 23 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Osteguna, 24 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Chuela, Kardaberaz 48
Hernani, Tel.: 943 551 793

tziala saltzen da Zabaletan. Interesatuak, deitu 615 793 320 telefono zenbakira.

• Etxea salgai erdialdean, bizitzeko modukoa, altzariekin. Bi logela, sala, sukaldea eta kumina. 171.288 euro. Harremanetarako deitu 659 594 797 zenbakira.

• Pabilioi industrialia saltzen da Brunet-en (Lasarte-Oria). 250 metro karratu. Harremanetarako, 658 910 569.

Bestelakoa

• Mobilhome bat alokatzen da uztaila eta irailan, Landetako Leon lakuan. Harremanetarako, 660 057 663.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

LITERATURA

Mikrokontakizunak lehiaketan

Ekainaren 8a izango da lanak aurkezteko azken eguna

Juantxi Ugarte, Xabier Goitia teknikariek eta Boris Nogales Kultura zinegotziak 2012ko literatur lehiaketaren aurkezpena egin zuten Manuel Lekuona kultur-etxean. Bi lehiaketa dira, bata haur eta gazteei zuzendutakoa eta bestea helduena, lehenak aurten 25 urte betetzen ditu eta bigarrenak 26.



Mikrokontakizunak dira aurtengo berrikuntzarik garrantzitsuenak.

Haur eta gazte lehiaketan parte hartzeko bi kategoria daude ohi bezala poesia eta ipuina biak euskaraz eta gaztelarazko taldeekin. Adinaren arabera honako banaketa egin da, A kategorian 9 urte dituzten haurrak; B-n sartzen dira 10, 11 eta 12 urtekoak eta C-n berriz, 13, 14 eta 15ekoak. Saria 150 eurokoa izango da irabazleentzat. Diru sariarekin batera, liburuak erosteko bonoa jasoko dute garailuek.

Lehiaketa herriko haur eta gazteentzat bereziki zuzenduta dago eta horregatik herriko ikastetxeekin lantzen da parte hartzea. Hala ere, "herrikoak diren haur guztiak har dezakete parte".

Berrikuntzak

Helduen lehiaketan aldatetako daude aurtengo edizioan izan ere, poesia eta mikrokontakizunak dira aurtengo berrikuntzarik garrantzitsuenak.

zunak dira lehiatzeko bi kategoriak, azken honek ipuinak ordezkatu ditu.

Aspaldiko eskaera zela eta, "mikrokontakizunetara egin dugu salto ipuinetatik" azpimarratu zuten Nogalesek jendeak lan motzagoak nahi zituelako.

Gehienez 1.500 karaktere dira idatzi beharrekoak eta bi maila sortu dira. Bata gazteena, 16-30 urte bitartekoena eta bigarena, 30 urtetik gorakoentzat. Irabazleek 500 euro eskuratuko dituzte. Lasarte-Oria saria banatuko da eta 150 eurokoa izango da. Hau herrian errolatutako arteen banatzen den saria da.

Euskaraz edo gaztelaraz aurkez daitezke lanak eta emailaz jasoko dira, mikrokontakizunak@lasarteoriasarean.eu eta microrrelatos@lasarteo-

riasarean.eu helbideetan.

Poesia lanak bestalde, euskaraz eta gaztelaraz aurkez daitezke eta sarietako dagokien, irabazleak 1.000 euro eskuratuko ditu eta Lasarte-Oria sariak 300 euro. Lanak postaz bidali edo Manuel Lekuonan utzi daitezke. Lehiaketaren oinarriak lasarteoriasarean.eu-n daude eskuragarri.

Dirua nahiago

Kultura sailetik gogoratu nahi izan dute sare sozialen bitartez, lehiaketa honetan eman beharreko sarien inguruko galdeketa egin zela eta gehiengoak, %80tik gora, dirua aukeratu zuela sari moduan. "Ipad, tablet-ak zeuden aukeran galdeketa baina emaitzak ikusita, saria dirutan ematen jarraitzea erabaki genuen" azpimarratu zuten Boris Nogalesek.

ERAKUSKETA

Danborradaren historia argazkietan

Lasarte-Oriako danborrada 1947. urtean atera zen lehenengoz geroztik, geroz eta herritar gehiago dira honetan parte hartzen dutenak. Ibilbide luze hau gogoratzeke, Manuel Lekuona erakusketa antolatuta da.

Hau osatzeko herritarren laguntza izan dutela azpimarratu zuten Ladis Louveilik, asko izan baitira jaso diren bizilagunen argazki zaharrak.

Horretaz gain, argazki batzuetan agertzen diren pertsonen izenak jarri gabe daudela azaldu zuten eta hauek osatzeko erakusketara gerturazten diren parte hartzea eskatu zuten Danborradako Batzordearen izenean. Erakusketa ekainaren 8a bitartean izango da zabalik.



DANOK KIDE

Lankidetzak eskertu zioten elkarteari

Esperanza Latinak plaka entregatu zion Danok Kideri bost igande iraun dituen sukaldaritza ikastaroa egiteko lekua uzteagatik.

Ikasle guztiak ikastaroko diploma banatu ostean, Esperanza Latina elkarteak presidentea Nicolas Correa Illarreta eta Alejandra Rebeca Muñoz ikasle nikaragoarrak, azken honek euskaraz, esker oneko hitzak izan zituzten Danok Kiderentzat eta Manolo del Valle eta Pili Peñarentzat.



Udalak isildu nahi duela salatu du PSOEk

Lasarte-Oria gobernatzen duten Bildu, PNV eta Herriar Plataformaren jokabidea salatu zuten astelehenean prentsaren aurrean Jesus Zaballos PSE-EEk Udalean duen bozeramaileak. Bere ustez, alderdi hauek herritarren parte hartzea aldarrikatzen dute auzoz auzo edo jaiak antolatzeko bilera irekiak eginez, baina gero "herriak hauteskundeetan aukeratutako ordezkariak eta alderdiei parte hartzea ukatu. Ostiralean Michelingo enplegu erregulazioari buruzko bileran ez zuten adostasuna bilatzeko urrats bat ere eman".

Zaballosen ustez, "gaur egun PSE-EEk aurkezten duena aurkezten duela, Bilduk bere sozioekin batera aurkako bozka emango du eta beti proposamen alternatiboa egingo dute PSE-EEren ahotsa isiltzeko helburuarekin". Zaballosen ustez honek erakusten du alderdi hauek



Jesus Zaballos PSE-EEren egoitzan.

koherentzia falta, lehen PSE-EEri leporatzen zioten jokabide berdina dutelako. "Jarrera hori 25 urtean PSE-EEk izan duena baino askoz okerragoa da gaur. Horri eusten badiote PSEren erantzuna izango dute. Gure mozio eta proposamenak aurkezten jarraituko dugu kontuan izanik hauteskundeetan boto gehien jasozko alderdia izan zela".

Michelingo erregulazioari eta Udalaren jarrerari buruz, ondo iruditu zaio Zaballosi alderdi guztien adostasuna bilatzeko Bilduren jarrera, baina gaizki bilerara erregulazioarekin zer ikusirik ez zuten proposamena eramatea.

Zaballosen ustez, ulergarria da Pablo Barrioren haserrea Michelingo instalazio berrien inaugurazioan alkatearen irudia erabili egin zutelako, erregulazioaren berririk eman gabe, baina bata bestearekin zerikusirik ez duela uste du, hau da, lasai parte hartu daitezkeen inaugurazioetan eta erregulazioak salatu.

Bestalde, prentsaurrekoan esan zuenez, pozgarria da erregulazioari buruz langileen ordezkari eta enpresako zuzendariaren arteko akordioa.

Azkenik Zaballosek Udalaren gardentasun falta salatu zuten astelehenean, informazioa ukatzen diotela adieraziz.

HITZALDIA

Atez-atekoa eta erraustegia hizpide

Lasarte-Oria Bizirik! taldeak antolatutako "Zaborrak: serio hitz dezagun" jardunaldietan hainbat hitzaldi eta ekimen egin dira egunotan. Asteartean Usurbil eta Hernanin bizi diren hainbat lasarteoriarrek atez-ateko bilketaren inguruan mintzatu ziren Villa Mirentxun. Asteazkenean "Errausteketa ala zaborteagatik: gezurrezko dilema" hitzaldia eskaini zuten Kepa Olaiz eta Juanmi Galatas Errausteketaren aurkako plataformaren koordinakundeko kideek. Atzo herriko, berriz, herriko edukionzietatik bisita egin zuten, Nerea Sanchez hirigintzako batzorde buruaren azalpenekin.



Hernanin eta Usurbilen bizi diren herritarrek haien esperientzia kontatu zuten.

EUSKARA EGITASMOAK LAN MUNDUAN

Baietz gurean, lan mundua euskararen bidean

Euskararen ahozko eta idatziko erabilera sektore guztietara hedatzeko etenik gabe lanean dabiltza Buruntzaldeko udalarietako eskulara lantsail gurtzikak.

Pablo Barrio Lasarte Onako alkatea aurkeztu le lanak egin zituen, "jakina" den bezala Buruntzaldeko udalen aldeko eskulararen erabilera sustatzeko programa ezberdinak marabun daude. Horien artean "Baietz gurean" alpatu beharra dago, kasa honetan Buruntzaldeko erabilera normalizatze aldera". Ekimena aurkeztearen baitan, hitz horien eskualdean bat egin zuten sei enpresen sinadura ekitaldiari hasiera eman zion.

Gaur egungo gizartearen hazkunde bat baino gehiago erabiltze ezinbestekoa da are gehiago enpresaren kasuan: gaztelania, ingeles, frantsesa eta, noski, euskara. Hizkuntzen kudeaketa ego- zila egitea enpresaren jarduna kaltetuko den ala ez neur- zeko aldagaita da.

Euskarari, dagokionez, Udala administratzaioentzati kalitate plinaren eta euskara hizuntzeko sinatzeko prest dalduten sei enpresa berri era- tziatuak dira. Ageraldi horre- tan bertan Luis Intxausti horre- karia berria da. Luis Intxausti- ren emaniko alkatea hitzame- naren nondik norakoak azal- du zituen, "eskualedeko enpresak kalitate eta lehiako- tasun mailarik onena eskain- tzea lortu nahi dugu". Euskararen erabilera testu- gurua horretan kokatu nahi dugu. "Baietz gurean" egitas- moarekin udalun eta enpre- sen arteko harremanak

Enpresen kudeaketaz arduratzen ari direnak, hizkuntzaren erabilera beste modu batera landu behar dela konturatu ari dira



Buruntzaldeko Udali ordezkariek enpresen ordezkariekin hitzarmena sinatu zuten.

frankortzeko zutabeak jarri nahi ditugu. Eta, bestetik, enpresak euskararen nor- baldiaren bidera erakumi".

"Baietz gurean" ekimen- arkin bat egitea erabaki duen enpresak lehenbizi enpresaren egoera linguistikoaren azter- ketari egin du. Datu bilketa baten bidez, egoera linguisti- koaren "argazkia" ateratzen duite. Datu horiek baliatu, ehun puntuko hamar atalean antolatutako satikapean, enpresa zen tokian kokatu behar den erabakitzen duite.

Guztietatik gehienera, enpre- sa horren datuekin 100-1000 puntu arteko satikapean sar- tzen da.

Hamar urrats dira, beraz, euskararen erabilerearen gara- penaz neurtzeko. Erabilerean arabera, enpresa 1000 puntu lorzeraino irits daiteke.

Zer egin bat egiteko? Ekimenekin bat egiteko era- bakia hartzen duen enpresak urte beteko hitzarmena sinat-

ditugun hornitzaileak eta bezeroak berakokok dira eta euskararen alde pausak ematzen ari direlako. Maila berean egoteko beharra ikusi dugu.

Enpresa modura guk ere gure mugak ditugu. Egunero- koan aldateta txikiak egitea kosta egin da, baina Baietz gurean egitasmoak tehen urratsak emateko bidea ireki- tzen laguntzen du. Hori dela eta, Buruntzaldeko gainerako enpresak ekimenarekin bat egitea animatu nahi ditugu".

Hitzarmena sinatu dutenek lan mundua eskualdunten laguntzeko prest daudela dio. Esan, egin eta ekin. Eskualdeko Udalekiseen laguntza ez zaie faltako.



Luis Intxausti, Hernaniko alkatea, Pablo Barrio Lasarte-Onako alkatea, Minin Aranguren Comercial Hosteleria del Norte enpre- sako ordezkaritza, Anara Rodriguez Andoingo alkate-ordea eta Jose Miguel Mujika Jaki Ona enpresako liderra.

"Euskararen erabilpena ahalik eta gehiago zabaltzeko saiakera ongierrria izan daiteke" Hibiari Arztimuño

Ingurua ere ezinbestekoa da, beraz, enpresaren jardura euskararen bitelitik erama- teko gaitarain.

IRAGO URUKA **Udalaren Erabilpena S.A.**

Buruntzaldea mailako age- rialdria Usurbilgo Talleres Mecanicos Manuel Etcheve- rria S.A., enpresa ko Inigo Uranga ordezkaritza burbidu zen. Honezkeron lantokian euskaraz bizitzeko hainbat pauso enginor eman dituz- te: "informatika programak euskaraz erabiltzen hasi gara, eta lantokiko errotu- laz, seguratu dugu. Bide- dagoekin edota errotu- laz, seguratu dugu, Hori guziaz euskaratu dugu. Hori guziaz gain, barne kudeaketarako eta elor daitzeko bezeroei begira gure dokumentazioa erabiltzen dugu. Baina doku- mentazioari eta paperategi- dakioenez oso motz gabel- tza. Ez dugu ezerteko egi- tean Udalak laguntza eskaini zagu, eta aurrera egitea era- tsi dugun mugatuko. Webgu- nea, aurrekontuak... horiek guztiak ere euskaraz pres- tatura animatu gara".

Nagik alde batera utzi eta borondate handia erakusten ari dira Comercial Hosteleria del Norte, "irudipena dau-

EUSKARA EGITASMOAK LAN MUNDUAN

Eskualdeko bost enpresa Baietz gurean egitasmoan

Laz abiatu zen ekimenarekin bat egin dute eskualdeko bost enpre- sek. Hauexek: Hernaniko Adarra lan tresnak eta Panificadora Her- nani, Usurbilgo Talleres Mecanicos Manuel Etcheverria S.A.,

"Ideia interesgarria iruditu zitzaigun. Gure enpresan erabiltzen ari- den teknologia erabiltzeko ditira, baina euskaratzeko nahiko errazak ziren"

Jose Miguel Mujika

go urratsak enpresako barne lanari begira eta hornitzaile- kiko harremanei begira eman nahi dituzte.

JOSE MIGUEL MUJIKAK **OSASUN OINA**

Andoingo Udali identifikari- eskudirik eskualdeko Udali pro- gramaren berri jakin zuten, "Ideia interesgarria iruditu zitzaigun. Egitza esan, gure enpresan erabiltzen diren tes- tuak erabazteko dira, baina euskaratzeko nahiko errazak ziren. Esfortzu txikiarekin euskaratzeko aukera genuen. Eta horrela ekin genion. Dagoeneko markan gaude eta piskanaka ikusiko dugu noraino irits gaitzekeen".

"Gure eskualdeko bela- naldi gaizteak beren kasakok euskaraz egiteko aukera izan dute; eskolan hasita eta uni- bertsiataraino. Horiek lan mundurako jauzia egin- dutekeen lanean euskaraz egiteko aukera izatea inpor- tanea da", Lasateko alkatea eskualdeko buruzagien asmoa isladatu zuen. Udali admini- strazioa eta gehiago zabaltzeko trazioa urratsak egin diren ari da. Ezinbestekoa da lan- munduko enpresak eta langi- leak urrats horien alde aurr- egi zeta eta, zorionez, dagoeneko eskualdean badira bat enpre- sarik.

HIBAI ARZTIMUÑO **Panificadora Hernani**

Eskualde mailan udalek mar- laria jartzea ekimenekin bat dator, "euskararen erabilpena ahalik eta gehiago zabaltzeko saiakera ordo dago. Ongieto- rria izan daiteke". Dagoeneko leku urrats horien alde aurr- egi zeta, aurrerago, dagoeneko "lenen begieretan nabarmenak diren aldatuek egiten hasi gara. Kontoretako errotu- laz aldatu dugu, baina bada izen komertziala berri. Lehen- Kerpian zuen, eta kuru erdai- lara zuzendu, enpresari Sula- da izena jarri zera erabaki genuen". Ez diria horrietan geratu, ko, Comercial Hosteleria del Norte, "irudipena dau-



Bide o a ikusi nahia



	Andoingo Udala Galea plaza, 39 20140 Andoingo
	Asiturzagutako Udala Ezkiaren plaza, 13 20115 Asiturzagutza
	Hernaniko Udala Gudaluzen plaza, 1 20115 Hernani
	Lasarte-Oriako Udala Eka plaza, 22 20160 Lasarte-Oria
	Umietako Udala San Jauregi plaza, 29 20130 Umieita
	Usurbilgo Udala San Martin Saizaren plaza 20170 Usurbil

LABURRAK.-

Ostadar bigarren postuaren bila

Ostadar SKT-ko Erregional Goreneko taldeak aste honetan hasiko du bigarren postuaren lehia. Zumaiaiko taldea garaitu behar du herriko taldeak Erregional Ohorezko mailarako igoera lortzeko aukera gehiago izateko.

Asteleheneko zombakian maiatzaren 27an eta ekainaren 3an argitaratu bagenuen ere, okerreko informazioa eskaini genuen. Lehen partida bihar izango da Zumaian 16:30ean eta itzulikoa maiatzaren 26an izango da, Asier Gorostegi entrenatzailearen laguntzaileak aipatu digunez.

Teniseko eskolarteko txapelketako finalak

Gipuzkoako Eskolarteko txapelketako banakako finalak jokatu dira bihar, 12:00etatik aurrera, Michelingo kirol gunean.

Arratsaldeko 16:30ean, Landaberri ikastolako Saioa Mendiluze eta Yaiza Navarro gaztetxoak infantil nesken finala jokatu dute.

Xabier Gonzalez entrenatzaileak aipatu digunez, ez dira azken fasera iritsi diren bakarrak izan, Xabier Uli, Nerea Santano eta Oihane Ortegak final aurrekoak jokatu dituzte. Taldeko mailan gainera, Landaberri ikastolako alebin mailako mutil eta nesken taldeek bigarren postua lortu dute.

Sari banaketa 17:00etan izango da eta honetan banakako sariez gain, taldekoak ere banatuko dira.

Endika Gartzia korrikalaria laugarren Izarraitzen

Beha lainoari aurre egin behar izan zioten, maiatzaren 13an, VIII. Izarraitzko mendi lasterketan parte hartu zuten korrikalariak. Horien artean bi herritar iziren, bata Endika Gartzia laugarren postuan amaitu zuen proba, 2:02:50; Jose Ignacio Elvirak, berriz, 2:40:29 denbora egin zuen.

Santa Ana pala txapelketako izena ematea

XXXI. Santa Ana pala txapelketan parte hartu nahi duten bikoteei jakin arazten zaie izena emate epea, igandearen maiatzaren 20an itxiko dela. Inskripzioa Abend kafe-antzekian egin behar dute bikoteek eta 30 euro ordaindu behar dituzte. Txapelketa maiatzaren 28an hasiko da.

ARETO-FUTBOLA.-

Txindoki eta Buenetxea finalean

Jalgune elkarteak eta David Martin korrikalaria dira sarituak

Bihar arratsaldean, Udal kiroldegian, Lasarte-Oriko XXIX. areto-futboleko txapelketako finalak jokatu dira. Final nagusia Txindoki eta Buenetxea taldeak izango dira, ligaxkakoan, berriz, Trumoi eta Naiban.

Nerea EIZAGIRRE

Ostadar SKT-k antolatzen duen Areto-Futboleko txapelketako finalak iritsi dira. Horregatik, bihar larunbata, arratsaldeko 17:00etatik aurrera Udal kiroldegian festa handia izango da.

Lehenik, ligaxkako finalean Trumoi eta Naiban taldeen arteko norgehiagoka ikusi ahaliko da.

Final handian, 18:30etatik aurrera, Txindoki eta Buenetxea izango dira.

Txindoki liga erregularreko irabazlea izan da eta lehenengo aldia da finalean iristen



Jalgune-ko gazteek talde mixtoaren aurka partida jokatzearaz gain, Auzolan saria jasoko dute.

dena; Buenetxea berriz, hainbat urteetan iritsi da finalera eta sei alditan txapelketako garaikurra lortu du, azkena 2008an.

Bi talde hauek iazko irabazlea eta txapeldun ordea, ISU Leihoak eta Izkiña taldeak, bidean utzita finalean iritsi dira.

Liga erregularrean Txindoki 3 eta 1 irabazi zion Buenetxeari. Beraz, final interesgarria izango da bihar arratsaldekoa.

Partida berezia eta sariak

Bestalde, bi partiden artean, Jalguneko gazteek talde mixto baten aurka partida jokatu dute. Iaz izan zen lehen aldia eta ohitura bilakatu nahi dutela aipatu digute Jalguneko lagunek.

Honetaz gain, Ostadar SKT-k urtero legez, Kirolari onena eta Auzolan sariak banatuko ditu. Hauek David Martin korrikalariarentzat eta Jalgune elkartearentzat izango dira.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 19
Michelin, 10:30ean
 Ostadar-Urola
Infantil Txikia, kopa
Michelin, 12:00etan
 Ostadar-Eibar
Kadeteen Ohorezko maila, igoera
Beraun, Erreterria, 12:00etan
 Beti Ona-Ostadar
Infantilen Ohorezko maila, kopa
Michelin, 15:30ean
 Ostadar-Arizmendi
Emakumezkoen liga, 9. postua jokoan
Aita Mari, Zumaia, 16:30ean
 Zumaia-Ostadar
Erregional gorena, bigarren postua jokoan
Azkoagain, Oiñi, 16:30ean
 Aloña Mendi-Ostadar
Jubenilen Ohorezko maila, igoera
Michelin, 17:15ean
 Ostadar-Behobia
I. kadetea, igoera
GAL, Irun, 17:30ean
 Irun 1902-Ostadar
I. Erregionala, igoera

Igandea 20
Michelin, 10:30ean
 Texas Lasartearra-Behobia
I. Erregionala, kopa
Kontxa hondartza, 10:30ean
 Hondartza futboleko txapelketako finalak jokatu dira.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 19
HERRIKO TXAPELKETA FINALAK
Kiroldegia
 17:00etan, Trumoi-Naiban
Ligaxkako finala
 18:30ean, Txindoki-Buenetxea
Txapelketako finala
Olaederra kiroldegia, Billabona, 17:00etan
 Egintza Transportes Lakuntza-Aldaz H.K.
Nazional III maila

PILOTA

Ostirala 18
Hernani, 21:00etan
 Hernani 3-Intza *Udaberri txapelketa, eskuz binaka, infantilak*

Larunbata 19
Añorga, 16:00etan
 Añorga 2-Intza *Udaberri txapelketa, eskuz binaka, 2. urteko alebinak*

JUDO

Larunbata 19
Villaviciosa de Odón, 10:00etatik aurrera
 LOKEko Mario Garrido eta Esteban Martinez judokak Hondarribiko Ama Guadalupeko taldearekin lehiatuko dira Estatuko Ligako finalean.

Hernaniko kiroldegia

Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko alebin mailako gaztetxoek erakustaldia dute.



SQUASHA

Astelehena 21
Kiroldegia, 18:00etatik aurrera
Txapeldunen fasea
 Oswal Cañedo-Iker Cañedo
 Kinin Calvo-Iñaki Garcia Muñoz

Asteartea 22
Kiroldegia, 18:00etatik aurrera
Kontsolazioa

Aitor Tejero-Raul Mateos
 Pablo Fermoselle-Juanjo Martin

Asteazkena 23
Kiroldegia, 18:00etatik aurrera
Txapeldunen fasea
 Joaquin Peña-Xabier Amiano
 Iñaki Garcia Muñoz-Oswal Cañedo

Osteguna 24
Kiroldegia, 18:00etatik aurrera
Kontsolazioa
 Javier Serrano-Roger Hidalgo
 Francisco Delgado-Iñaki Garcia Sanz

TENISA

Larunbata 19
Kirol gunean, 12:00etatik aurrera
 Eskolarteko Gipuzkoako txapelketako finalak jokatu dira.
 16:30ean, Landaberri ikastolako Saioa Mendiluze eta Yaiza Navarro infantil nesken final nagusia izango dira.

GIMNASTIKA

Igandea 20
Hernani, 10:00etan
 LOKE elkarteko, Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko taldeek Udaberri txapelketako finalean izango dira.

ATLETISMOA

Igandea 20
Zegama, 09:00etan
 Iraitz Arruabarrena herritarrak Zegama-Aizkorri mendi maratoian parte hartuko du.
Donostia, 10:00etan
 Herriko hainbat korrikalari Donostiako maratoi erdian parte hartuko dute.
Donostia, 10:00etan
 Herriko hainbat korrikalari Donostiako maratoi erdiaren barruan dagoen 10 kilometrotako proban parte hartuko dute.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 19
Ataun, 16:00etan
 Bazpi txirrindularitza eskolako eta herriko kadeteek II. Ataun-Aia sarian parte hartuko dute.
Urretxu, 16:00etan
 Bazpi txirrindularitza eskolako infantilek Gipuzkoako Errepideko Txapelketan izango dira.

Igandea 20
Biyak Bat, 08:00etan
 Ostadar SKT-ko zikloturistek irteera dute Ibadinera.
Egia, Donostia, 09:30ean
 Bazpi txirrindularitza eskolako eta herriko jubentilek Zury Saria-18. Juanjo Zabala Oromenezkoan parte hartuko dute.

ERRUGBYA

Larunbata 19
Ubitarte, Andoain, 10:30ean
 Beltzak Ostadar Jalai Errugby eskolako alebin mailako gaztetxoek topaketa dute.

Igandea 20
Michelin, 9:00etan
 Beltzak Ostadar Jalai Errugby eskolako maila guztiak entrenamendua dute.

Agenda

Ostirala 18, Jalgi Kafe-Antzokia, 22:30ean



Portugalgo doinuak

"Ventos de Saudade" taldeak fado emanaldia eskainiko du. Fadoen poesia musikatuak liluratuta hasi zuen bere ibilbidea 2005ean Soruluzeko laukoteak. Portugalgo doinu tradizionalak eta modernoak tartekatuz, Amalia Rodrigues, Mariza eta Misia bezelako abeslari ezagunen fadoak interpretatzen dituzte.



Larunbata 19 Okendo plazan

11:00etan, Herri kirolak. Lasarte-Oriako gazteak Zubietaren aurka.
12:30ean, manifestazioa herriko kaleetatik barrena.

13:00etan, ekitaldi nagusia:

- Mosaikoa
- Joxe Balerdiri omenaldia
- Ekitaldia

14:00etan, bazkari herrikoa.

Bazkal ostean, Mus txapelketa.

19:00etan, globo aeroestatikoan ibiltzeko aukera. Antonio Mercero plazan.

22:00etatik aurrera, Makulu Ken eta Aurka herriko taldeen kontzertua.

Ondoren, Big Time Sound System -en saioa goizeko ordu txikiak arte.

Oharrak

- Mosaikoan parte hartu nahi dutenek kamiseta gorria edo beltza jantzi behar dute.
- Bazkariko txartelak salgai ohiko tabernatan. Prezioa 12 euro.

Lasarte-Oria Musika

ABEND KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 18, 23:45ean

Metal gaua "Vita Imana" eta "Korumbá" taldeen eskutik. Sarrerak aurretik 10 euro; egunean bertan, 12 euro.

X. Antzerki eta Dantza astea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Ostirala 18, 19:00etan

Landaberri ikastolako LH3ko gaztetxoek "Mimoak beti berriketan, nola?" lana antzeztuko dute, Zubietako ikastolako ikasleek, berriz, "Basoan galduta" lana. Euskaraz.

Ostirala 18, 22:30ean

Gazteen taldeak "Shakespeare osoa gutxi gorabehera" lana aurkeztuko du. Euskaraz.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata 19, 22:30ean

Helduen taldeak 36 urte hauetako Saharako errefuziatuen egoeraren errepaso egiten duen "Ixiltasunaren aho-tsak" lana aurkeztuko du. Euskaraz.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea 20, 12:00etan

Euskal dantza eta sorkuntzako emanaldia eskainiko dute dantza talde ezberdinek. Euskaraz.

Igandea 20, 19:00etan

Dantza garaikideko emanaldia eskainiko dute, Landaberri ikastolako eta Kukuka antzerki eta dantza eskolako taldeek. Euskaraz.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Astelehena 21, 19:00etan

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko LH1-2 taldeak "Hodei Tripaundi" lana eskainiko du; LH3 eta LH4ko ikasleek, berriz, "Azitia" antzezlan. Euskaraz.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Aste honetan zehar

Saharako errefuziatuak bizi diren Tindouf kanpamentuetako argazkien erakusketa.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Maiatzaren 14tik ekainaren 8ra

Lasarte-Oriako danborradako antolatuak 1947tik gaur egunera arteko Danborradako argazki erakusketa jarriko dute.

Herritarren txokoa

Bertso-saioa Hitzetik hortzera programan

Bihar, maiatzak 19 larunbata, gaueko 23:00etan, EITB1 kateko Hitzetik hortzera programan maiatzaren 5ean, Manuel Lekuona kultur-etxean egin zen "Auzokoarekin auzolanean" bertso-saioko zatiak eskainiko dituzte. Honetan Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Unaiu Muñoa eta Ane Labaka izan ziren bertsoetan.

Herrira-ren elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, maiatzaren 25an Lasarte-Oriako Herrira mugimenduak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar gutzietan parte hartu dezaten.

Maria Auxiliadora-ren omenezko meza

Maiatza Maria Auxiliadora-ren hilabetea denez, maiatzaren 27an, igandean, eguerdiko 12:30ean Zumaburuko Arantzazuko Amaren kaperan Ama Birjina honen ohorezko meza ospatuko da. Meza amaitzean luntx txikia konpartitzeko aukera egongo da.

Denboraldi amaierako afarirako tiketak

Ostadar SKT-k maiatzaren 26an 2011-2012 denboraldi amaierako afaria antolatu du.

Bertan egon nahi dutenek tiketa eskuratu behar dute kirol taldearen bulegoan arratsaldetan, 18:30etik 20:00etara. Txartela eskuratzeko azken eguna gaur, maiatzaren 18a da.

Galdutako gauzak

Lehenengo larunbatean, maiatzaren 5ean, Loidi-Barrengo pilotalekuan antolatu zen Amaraun jaialdian, Batman-en kapa grisa eta beltza galdu zen.

Norbaitek aurkituz gero, dei dezala 636694375 telefono zenbakira.

Txakurra galdu da

Thor hiru urteko Spaniel Bretona galdu zen apirilaren 21ean Cocheraseko bidegorriaren inguruan. Kolore gorri-ka du txuri gutxirekin. Mikrotxipa dauka.

Norbaitek aurkitu badu honako telefonoetara deitzea eskertuko genuke 687 571 037 eta 670 950 785. Sarituko da.

Eskutitza

Zaballos jaunari erantzuna

Lerro hauek baliatu nahi ditugu zuk eta zure Udal Taldeak duela egun batzuk Michelinek aurkeztu duen EREaren inguruan harturiko jarrera oportunistarengatik gure haserrea adierazteko.

Lasarte-Oriako Udalak EREaren aurrean negoziazio eta akordioaren aldeko jarrera hartzea bultzatu nahi izatea, ez da egokia. Lehenik langileen ordezkaritzak ez delako inolako bitartekaritza eskatu eta protagonismo politikoa bilatuz inolako ekarpenik egin ez duen esku-hartze onartezin bat delako. Bigarrenik langileen ordezkaritzaren zati handi bat EREa beraren aurka gaude, gure sail sindikala kasu, gogorarazi nahi dizugu Zaballos Jn. LAB Lasarteko Michelinek indarrik bozkatuena dela.

Zaballos Jn. ez dugu zuk egingo akats berbera egingo eta ez da gure asmoa zure lana zein izan behar duen esatea. Baina herrian dauden gune industrialek inguru-

ko zure adierazpenak irakurritan, lerro hauek baliatuko ditugu, alde interesatua eta Fundación Michelinek martxan jarritako berrindustrializazio proiektuko Aholku Batzordeko kide garen aldetik, premiatu nahi zaitugu Eusko Jaurlaritzan dauden zure alderdikideei galdegin diezaiezun, gaur zure alderdiak geldirik duen berrindustrializazioari ekin ahal izateko diru partida bat desblokeatu dezate.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Michelingo LAB Sindikatua

Euskal Presoen eskubideen alde

Herrira-k Goazen plazara ekimenaren baitan Okendo plazan ekintza ugari antolatuko ditu bihar

Herrira ekimenak bihar, maiatzaren 19a, bere aldarrikapenak Euskal Herriko hainbat herrietan kalera aterako ditu, "Goazen plazara" lemapean. Lasarte-Oriako taldeak mobilizazio deialdiari erantzun eta Okendo plazan ekintza ugari izango da egunean zehar. Ekitaldi nagusia 13:00etan izango da.

Azken hilabetetan Euskal Herrian euskal preso politikoen eskubideak bermatzearen aldeko hainbat ekitaldi jendetsu izan dira. Hauetan guztietan, Herrira-ren aldarrikapen nagusia euskal presoen eskubideak errespetatzea izan da. Eskararak honek euskal presoak Euskal Herrira ekartzea, gaixotasun sendaezina duten presoak askatzea, espetxe-politikak egokitzea eta bizi osorako espetxe zigorrik bertan behera uztea ditu bere baitan.

Baina Espainiar eta Frantziar Gobernuak ez dute pausorik eman eta ez dute kartzela politika aldatu. Horregatik, herritarrak batuta,

espetxeetako giltzak dituztenei jarrera aldatzera bultzatzeko Herrira-k "Goazen plazara" ekimena jarri du martxan eta bihar, maiatzaren 19an, Euskal Herriko plaza ugari izango da bere eskaerak jakitera emateko.

Ekitaldiak

Lasarte-Orian ere hainbat ekintza izango dira Okendo plazan, goizeko 11:00etatik gaualdera arte.

Astelehenean izan zen aurkezpenean denetarik izango dela aurreratu zuten, herri kirolak, herri bazkaria, mus txapelketa, globo aerostatikoa ibiltzeko aukera eta Maku-lu Ken eta Aurka herriko taldeen kontzertuak



Hainbat elkarte bildu ziren asteleheneko aurkezpenean. Sokari tira eginez, guztien laguntzaz helburua lortuko dela adierazi nahi izan zuten.

Ekitaldi nagusia 13:00etan izango da eta aurretik manifestazioa izango da. Ekitaldian besteak beste, mosaiko bat egin eta hil berri den Joxe Balerdiri, Juankar Balerdi presoaren aitari omenaldia egingo zaio.

Herrira-ko kideek jakin arazi dutenez, mosaikoan parte hartu nahi duten herritarrek kamiseta gorria edo beltza jantzi beharko dute.

Era berean, bazkarirako txartelak ohiko tabernetan 12

eurotan salgai daudela adierazi dute.

Azkenik, Herrira-ko kideek herritarrak gonbidatzen dituzte ekintzetan parte hartu eta euskal presoei elkartasuna adieraztera.



IEFPS USURBIL GLHBI



Goi-mailako
Erdi-mailako
**HEZIKETA
ZIKLOAK**

ATE IREKIAK

**Maiatzaren
12an eta 19an,
larunbatez**

Energia eta ura



e-mail: eskola@lhusurbil.com

Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600